

Nafarroan euskaraz egin daitezkeen tramite telematikoak, %25etik behera

Administrazioak «euskaldunen eskubideak urratzen» dituela salatu dute Uemak eta Behatokiak

an sartuko da ondoren. 06:30 aldera iritsiko da Usurbilera. Toloaldeko herrietatik Urola barrena joango da, eta handik Urola Garaira eta Goierriara. Ostiraleko azken orduak Tolosaldean egin eta gero, gauerdian Leitza aldera iritsiko da, Berastegitik. Ezkurra mendatetik Malerreka ibarrera egingo du, eta Bortzirietara gero. 05:00etan iritsiko da Igantzira.

Ibardindik Lapurdira sartuko da Korrika ondoren, eta han ibiliko da bizpahiru orduz. Zugarramurdin tarte txiki batez lasterke-ta Nafarroara itzuli arte. Baionarako bidean segituko du gero, eta 17:30 aldera iritsiko da Lapurdiko hiriburura. Kostaldetik jarraitu-

Iruñetik apirilaren 2an igaroko da Korrika; Mauletik, hilaren 4an; Bilbotik, 6an; eta Baionatik, 9an

Ibilbidearen xehetasun guztiak 'Berria.eus'-en kontsultatu daitezke, herriz herri, mapa interaktibo batean

ko du, eta hala iritsiko da Bidasoaldera, gauerdian. Larunbat gauetz igaroko ditu Bidasoko aldea, Oartzualdea eta Hernani aldea, eta, azkenik, goizean ailegatu da Donostiara. Eguerdian ekitaldi bat egingo dute, eta, ohi bezala, bertan irakurriko dute Amurrión lekukoan sartutako mezua.

Donostian amaiera, 1999an

Azkeneko, 1999an amaitu zen Donostian Korrika. 11. edizioa zen, eta Joxe Ripiau taldeak jarri zion musika lasterketari orduko hartan. Euskararen alde hainbat esparrutan jardundako 11 lagun omendu zituztenaldi hartan. Aurtun, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei egingo diete aitortza, euskararen sustapenean «eragile aktibo» izateagatik. Urtarrilaren 7an egin zieten omenaldia, Tolosan (Gipuzkoa), eta, bertan, Korrikako koordinatzaile Asier Amondok nabarmendu zuen Aiora Zulaiak, Joxe Mari Agirretxek eta Mertxe Rodriguezek osatutako hirukotearen jardunak «zuzeneko eragina» izan duela gurasoengandik umeengana eta umeengandik gurasoengana euskara transmititzean.

Ibilbidearen xehetasunak *Berria.eus*-en kontsultatu daitezke. AEK-k jakinarazi duenez, kilometroak erreserbatzeko aukera otsailaren lehen zabalduko da. Interesdunek Korrika bulegoekin harremanetan jarri behar dute.

Ion Orzaiz Iruñea

Lautik bat. Ezta hori ere: gaur egun, Nafarroako herritarrek 1.434 tramite telematiko egin ditzakete administrazioarekin, eta, horietatik, 334tan bakarrik erabil dezakete euskara. %23,29tan, alegia. Udalek eta toki entitateek Nafarroako administrazioarekin egin ditzaketen izapideen kasuan, are makurragoa da egoera: 778tik hogeitau baina ez dira euskaraz egiten ahal: %2,5. Nafarroan, euskaldunen hizkuntz eskubideak «behin eta berriro urratzen» direla salatu zuten atzo Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako batzordean.

«Kezkatuta gaude, herritarrek Nafarroako Gobernuarekin dituzten harreman telematikoe-tan ez direlako hizkuntza eskubideak errespetatzen, ez zuzeneko arretan, ezta telefono edo Internet bidezkoan ere. Urteak daramatzagu horrela», azaldu zuten Behatokiko zuzendari Agurne Gaubekak, batzorde parlamentarioaren ostean egini-ko agerraldian.

Telefono bidezko arretari dagokionez, gainera, Gaubekak nabarmendu du euskarazko hautua egiteak «bestelako albo kaltetak» ere eragiten dizkiela herritarrei: «Besteak beste, informazioa jasotzea gaztelaniaz baino beranduago edo euskara maila eskasarekin». Horrek guztiak herritarren arteko berdintasuna urratzen duela salatu zuten Behatokiko buruak. «Nabarmena da gutxiespena euskara erabili nahi duten herritarrekiko eta udalkekiko».

Aitor Elexpuruk, Uemako zuzendartzako kide eta Berako alkateak, parlamentariari gogorazi zion Nafarroako Gobernuak hobetsi egiten dituela komunikabide elektronikoko eta telematikokoak, «herritarrekiko zein administrazioekiko zerbitzuetan denbora aurreratzeko bide gisa». Helburu hori lortzeko, baina, «erosotasuna, malgutasuna, bizkortasuna eta garaietara doitzeko erraztasuna» eskaini beharko litzukeela



Aitor Elexpuru (Uema) eta Agurne Gaubeka (Behatokia), atzo, Nafarroako Parlamentuan. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

gaineratu zuen: «Errealitatea oso bestelakoa da». Uemako eta Behatokiko ordezkariak batzordean azaldu zuten, administrazioaren jardun telematikoak «goitik behera» urratzen du foru arauak eta dekretuek ebazten dutena: «Besteak beste, Nafarroako administrazioaren jabetzako baliabide elektronikokoak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzeko betebeharra».

Eremu guztietan, kale

Elexpuruk esan zuen «ziurgabetasun handiko egoera» dela euskaraz lan egiten duten udalentzat: «Legeak ez du bermatzen Nafarroako Gobernuarekin eguneroko ditugun harremanak euskaraz izatea. Askotan, ez dakigu udaletik euskaraz bidaltzen ditugun agiriak, abisua edo oharrak jasotzen dituzten edo gaztelaniazkoen tratatu eta arreta bera eskaintzen dieten».

Izan ere, eskubide urraketak «eremu guztietan» gertatzen direla gaineratu zuen Gaubekak, «baita hizkuntza eskubideak gehien bermatzen diren eremuetan ere». Arazoaren muina Euskararen Legean bertan dagoela

uste du Behatokiko zuzendariak, «Nafarroaren zatiketzea» eragin duelako: «Eremu euskalduneko herritarrek, ustez, legez bermatuta izan beharko litzukete beren hizkuntza eskubideak, baina jasotzen dituzten zerbitzu gehienak Iruñean daude, eremu mistoan, eta araudia ezberdina da. Argi uzten du horrek disfuntzio bat dagoela, eta hori konpondu beharra dago lehenbailehen».

Udalek gobernuarekin egin beharreko tramiteen %2,5 dira euskaraz; «ziurgabetasuna» salatu du Uemako ordezkariak

Egungo araudia aldatzea eta lanpostu elebidunak sortzea galdegin du Behatokiak, «arreta euskaraz bermatzeko»

Behatokiko kidearen esanetan, egungo araudia «ez da nahikoa» euskara erabili nahi duten herritarren eskubideak bermatzeko. Hori dela eta, bi eskari egin dizkiote Nafarroako Gobernuari: «Batetik, berma dezala egoitza elektronikoko tramiteak zein bestelako jarduerak euskaraz egin ahal izango direla; eta beste-

tik, herritarrekiko zerbitzu guztietan euskarazko zerbitzua berdintasunean bermatzeko langile elebidunak ezar ditzala».

Gaubekak parlamentariari gogorazi zion bi baldintzak beharrezkoak direla euskarazko arreta bermatzeko aldera: «Taldea parlamentario guztiek onartu dute errealitatea zein den, eta hori bada urrats bat. Baina batzuek ez dute horretan bereizkeria edo eskubide urraketa handirik sumatzen, edo ueste egungo lege esparrua nahikoa dela eskubide horiek bermatzeko». Behatokiko zuzendariaren ustez, baina, ezinbestekoa da arauak aldatzea eta administrazioa euskalduntzea: «Arreta euskaraz bermatzeko eta aplikazio nahiz baliabide telematikokoak euskaraz eskaini ahal izateko, behar-beharrezkoa da baliabide horiek martxan jarriko dituzten langile elebidunak kontratatzea».

Hori dela eta, «hitzetatik ekin-tzetara pasatzeko» galdegin zieten Nafarroako Gobernuari esaten dieten talde politikoei.